



ORIOKUDALA

Euskaraz
bizi-bizi



EUSKARAZ BIZI-BIZI PLAN ESTRATEGIKOA —ORIO 2014-2017—



Udaleko Euskara batzordea
2014ko abendua



ORIOKUDALA



AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
DIAGNOSIA.....	4
EUSKARAREN PLAN ESTRATEGIKOA.....	19

SARRERA

Orioko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailarekin elkarlanean, bitan prestatu du herriko euskararen plan estrategikoa: 2002an, aurreneko aldiz; eta 2008an, bigarren bez.

Zer da 'Euskararen Plan Estrategikoa'? Ba, hitz gutxitan esanda, hauxe: datozen lau urteotan Udalak euskararen alorrean non eragin nahi duen eta zein lehentasun izango dituen markatzen duen dokumentua.

Zer egin erabakitzeko, jakina, egoera nolakoa den aztertu behar da aurrena, eta hori da 'Diagnosia' atalean egin duguna. Esparruz esparru eskueran genituen datuak bildu eta egoeraren argazki bat atera dugu, lagungarri izan dadin egitekoak finkatzeko.

Behin diagnosia eginda, plan estrategikoaren proposamen bat landu du Udaleko Euskara Zerbitzuak, HPSrekin elkarlanean, eta, ondoren, proposamen hori herriko eragileekin landu eta gero, Udaleko Euskara batzordeak aztertu, osatu eta onartu du.

Udaleko Euskara batzordea




DIAGNOSIA

DATU OROKORRAK

HERRIARI BURUZKO DATU OROKORRAK

Orion 5.800 lagun inguru bizi dira (2014ko urriko datu ez-ofiziala). Orio Urola Kostako eskualdean kokatuta dago. Urola Kostako eskualdea 11 udalerrik osatzen dute. Eskualdeko biztanleen bi heren Azpeitian, Azkoitian eta Zarautzen bizi dira.



Biztanle kopuruaren eboluzioa

Probintziako eta eskualdeko beste herri gehienetan bezala, Orion ere biztanleak galdu ziren 1981etik 1996ra.

Azken urteetan, ordea, galera prozesuari buelta eman dio herriak eta, etxe berri asko egin direnez, biztanleak irabazi ditu nabarmen: 2008an pasa zuen 5.000 biztanleko muga eta, gaur egun, 2014an, 5.800 biztanle inguru ditu.


HIZKUNTZA GAITASUNA, 2011

Orion euskaldunak dira nagusi; hamar lagunetik ia zortzi euskaldunak dira (%76); ostera, %10 erdalduna da. Ia euskaldunen portzentajea, berriz, %13 da. Bilakaerari dagokionez, euskaldunen portzentajeak behera egin du azken urteotan: %83koa zen 1996an eta %76koa, 2011n.

2011n, lehen aldiz, ia euskaldunak eta erdaldunak oriotarren laurdena izatera iritsi dira eta horretan zeresan handia izan dute etorri berriek.

Erdaldun elebakarren portzentajea, berriz, hazi egin da azken urteotan: %7koa zen 1996an; eta %10ekoa zen 2011n.

13. Grafikoa. Orioko hiztunen euskara-gaitasuna, 2011



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

	1986		1991		1996		2001		2006		2011	
Euskaldunak	3.395	81%	3.376	81%	3.455	83%	3.437	80%	3.559	77%	3.959	76%
Ia-euskaldunak	358	9%	399	10%	414	10%	536	12%	655	14%	689	13%
Erdaldunak	438	10%	405	10%	312	7%	326	8%	382	8%	529	10%
Hiztunak	4.191	100%	4.180	100%	4.181	100%	4.299	100%	4.596	100%	5.177	100%

Hizkuntza-gaitasuna, adinaren arabera


Euskaldunen proportziorik handiena gazteenen artean dago. 20 urtetik beherako adin-tarteetan ia denak euskaldunak dira.

SIADECOK 1999an egindako azterketaren arabera ('Orioko gazteak eta euskara: bilakaera, egungo egoera eta etorkizunerako urratsak'), Orion ez zegoen gazte guztiz erdaldunik. Azpimarratzeko modukoa da, gainera, hogeitaz beherakoen artean euskaldunak (euskaraz ondo egiten dutenak) % 99ra iristen zirela.

Azterketa lan horretan egin zitzaizkien inkestei emandako erantzunen arabera, gazte gehienek, gainera, euskaraz hobeto hitz egiten dute gaztelaniaz baino.

2011ko datuak ez dira horren erabatekoak eta euskaraz ez dakiten haur eta gazte batzuk badirela erakusten dute (etorri berriak, batez ere). Hala ere, haur eta gazte horiek guztiak euskaraz eskolatzen dira gero, eta ia erabat lortzen dute euskara ikastea.

17. Grafikoa. Orioko hiztunen euskara-gaitasuna adin-taldeka, 2011



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak




KALE NEURKETAKO DATUAK

Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuak euskararen erabileraren kale neurketak egiten ditu maiztasun finko batekin (urtero, lehen; bi urtetik behin, 1999az geroztik). Horrek kaleko erabilera errearen adierazle bat ematen digu. Neurketa beti urte garai berean egiten da, toki eta ordu jakinetan, urtez urteko datuen konparagarritasuna bermatzeko.

Kale neurketako datuak oso baliagarriak dira jakiteko euskararen erabilera zertan den une jakin batean, eta, batez ere, ikusi ahal izateko erabileraren eboluzioa nolako den urtez urte.

Orioko kasuan, datuek erakusten dute euskararen erabilera ez dela handitu azken urteotan eta, areago, jaitsi egin dela adin-tarte batzuetan; gazteek eta haurrek oso erabilera-maila altua dute eta horri eutsi egiten diote urtez urte; baina helduena nabarmen jaitsi zen 2012ko azken neurketan.

Nabarmenezkoa da helduen artean elkarrizketen erdia gaztelaniaz dela; eta horrek esan nahi du, adin-tarte horretan, gaztelaniaz egiteko joera dutela euskaldun askok. Alegia, gaztelaniaz egiten duen oriotarren %50 horretan ez direla denak, ezta gutxiagorik ere, erdaldunak.



ORIOKO UDALA. EUSKARA ZERBITZUA

Euskararen erabileraren kale neurketa. Urtez urteko konparaketa

	1989	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2001	2003	2005	2007	2009	2011	2013
Haurrak	77,40%	78,40%	77,00%	85,00%	83,00%	91,30%	92,60%	93,10%	87,70%	94,80%	89,54%	92,29%	86,64%	96,07%	83,50%	93,52%	88,50%
Gazteak	30,20%	31,20%	50,70%	54,00%	62,30%	60,60%	70,10%	67,60%	67,50%	84,90%	74,63%	84,29%	81,08%	83,57%	84,64%	90,02%	88,55%
Helduak	54,90%	55,20%	59,20%	54,00%	59,10%	55,70%	57,60%	56,30%	58,50%	62,60%	67,16%	63,27%	58,03%	65,58%	53,51%	61,19%	55,87%
Zaharrak	73,80%	67,30%	67,40%	77,60%	78,90%	75,80%	71,90%	73,10%	78,50%	75,80%	75,71%	73,52%	77,20%	76,90%	71,65%	77,24%	69,59%
GUZTIRA	55,90%	57,60%	62,00%	62,10%	66,90%	65,20%	64,90%	67,10%	67,70%	72,90%	74,02%	71,58%	68,29%	73,53%	63,89%	73,93%	66,37%

ALORREZ ALORREKO DATUAK


FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Eskura ditugun datuen arabera, oriotar gehienek familia bidez jasotzen dute euskara oraindik. Hala ere, datuok erakusten dute azken urteotan galera gertatu dela hor eta, gaur egun, oriotar askoren etxeko hizkuntza gaztelania dela.

Galera oso nabarmena da: 1991n euskara zen etxeko hizkuntza oriotarren %73rentzat. 2011n, berriz, %52rentzat bakarrik.

Gaztelania, berriz, oriotarren %18rentzat zen etxeko hizkuntza 1991n. 2011n, %31rentzat.

65. Grafikoa. Orioko hiztunen etxeko hizkuntza, 2011



Iturria: EUSTAT, Biztanleria eta Etxebizitzaren Estatistikak

	1991		1996		2001		2006		2011	
Euskara	3.045	73%	2.651	63%	2.591	60%	2.416	53%	2.704	52%
Gaztelera	733	18%	735	18%	919	21%	1.191	26%	1.583	31%
Biak	358	9%	735	18%	749	17%	966	21%	794	15%
Beste bat	44	1%	60	1%	40	1%	23	1%	96	2%
Hiztunak	4.180	100%	4.181	100%	4.299	100%	4.596	100%	5.177	100%

IRAKASKUNTZA

Orion bi ikastetxe daude: bat, publikoa, eta bestea, ikastola. Bai ikastetxe publikoan bai ikastolan D eredia baizik ez dago.

Orion, Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza baino ez da ematen, hau da, 16 urte arteko irakaskuntza baino ez da eskaintzen. Ikasturte guzti horietan D eredia baizik ez dago.

Hizkuntza Normalkuntzako programak

Bai Zaragueta Herri Eskolak eta bai Orioko Herri Ikastolak abian dauzkate Hizkuntza Normalkuntzarako programak eta urtero garatzen dituzte hainbat jarduera, euskararen sustapenaren alorrean eta motibazioaren alorrean.

Hizkuntza ereduaren bilakaera

Hezkuntzan hizkuntza ereduak ezarri zirenetik D eredia nagusi izan da beti, eta etengabe egin du gora. A eta B ereduak, berriz, behera egin zuten, 1993-94 ikasturtean erabat desagertu ziren arte.

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Orion ez dago euskaltegirik gaur egun. Udalak, hala ere, tratua egin dauka Zarauzko AEK euskaltegiarekin eta urtero egiten du euskara ikastaroen eskaintza irailean. Hortik sortzen diren taldeak Zarauzko AEK euskaltegiak kudeatzen ditu. Zailtasunak izaten dira taldeak osatzeko, baina azken urteotan beti osatzen da talderen bat edo bi (txikiak, hori bai). Euskaltegiko eskolak kultur etxeko geletan ematen dira.

Inguruko herritan gero eta indar handiagoa ari da hartzen autoikaskuntza; baina Orion ez dago aukerarik horretarako.

Mintzalagun egitasmoa Urola Kostako Udal Elkartetik gestionatzen da eta indar dezente du eskualdean. Orion, hala ere, ez dira inoiz bi edo hiru taldetik gora sortu ikasturte bakoitzean.

Udalak antolatuta, izan dira saio batzuk etorri berrien hizkuntz integrazioari begira: Aisa ikastaroak eta Auzoko egitasmoa. Auzoko egitasmoak indarra izan zuen pare bat urtez, baina gaur egun geldituta dago.

Udalak diru laguntzak eskaintzen dizkie herrian nahiz herritik kanpo euskara ikasten dutenei.

ADMINISTRAZIOA

Herriaren tamainagatik hamahiru zinegotzi dagozkio Orioko Udalari. Gaur egun, alkatea eta zinegotzi guztiak euskaldunak dira.

Udaleko Euskara Zerbitzuan euskara teknikari bat ari da normalizazio lanetan. Teknikari horrek itzulpen lanak ere egiten ditu.

Orioko Udala UEMako (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kide da 2002az geroztik eta horrek bultzada eman dio euskararen erabilerari erakundearen barruan.

Udalak onartua dauka euskararen erabilera plana, HPSrekin elkarlanean landu zuena, eta UEMaren bitartez egiten du horren jarraipena. Euskararen erabilera asko handitu da Udalean azken urteotan eta gaur egun euskaraz funtzionatzen du neurri handi batean.

ARLO SOZIO-EKONOMIKOA

Biztanleria, lan-sektorearen arabera

Biztanleen erdiak baino gehiagok zerbitzuen sektorean egiten du lan. Industrian ari direnak hamarretik lau lagun dira. Herrian bertan ez dago industria sektore indartsurik eta, beraz, horretan ari diren oriotarrak herritik kanpo egiten dute lan.

Erabilera-plana enpresetan

Ez dago erabilera-plana martxan duen enpresarik. Alor hau Urola Kostako Udalen Elkartek landu du azken urteotan, 'Lanera!' izeneko programaren bidez; baina, azken urteotan, krisia dela-eta, geldirik dago alor honetako ekimena.

Merkataritza Euskaraz

Udalak urte asko daramatza 'Merkataritza Euskaraz' egitasmoa lantzen Orion; eta, ondorioz, aurrerapauso nabarmenak eman dira hainbat alorretan: paisaia linguistikoa (errotuluak, kartelak...), sentsibilizazioa, euskarazko materialak...

Ekimen eta jardunbide ugari izan dira egitasmo horren barruan: 'Menuak Euskaraz' kanpaina, Euskalduntze Plan Integralak hainbat komertziotan, errotuluak euskaratzeko laguntzak, hiztegi sektorialak argitaratzea...

Azken urteotan Urola Kostako Udal Elkartearen bidez ari da Udala alor hau lantzen, eskualdeko beste herriekin elkarlanean (KALEKO egitasmoaren bidez).

Orokorrean, harrera ona du egitasmoak; baina, hala ere, nahiz urteak daramatzen Udalak honetan, zailtasunak ditugu oraindik kontu sinple batzuekin: esaterako, tabernaren kanpoan jartzen diren eguneko menuak euskaraz ere izaterik ez dugu lortu eta asteroko azokako hizkuntza-paisaia euskalduntzerik ere ez.

AISIA ETA KIROLA

Txurrumuski taldea da, gaur egun, haur eta gazteentzat jarduerak antolatzen dituen herriko talderik inportanteena. Bere ekintza guztiak euskaraz dira.

Hizkuntza aldetik garrantzi gehien duen ekintzetako bat udako Udaleku Irekiak dira. Hasiera batean Euskara Zerbitzuak antolatzen zituen, familia erdalduneko haurrei aukera emateko udan ere euskaraz aritzeko. Gaur egun antolatzeko modua aldatu egin da eta Txurrumuski taldea arduratzen da ekintzaz; hizkuntza irizpideei, hala ere, bere horretan eusten zaie. Haurren parte hartzean gorabeherak izaten dira urte batetik bestera; baina ehun haur inguruk parte hartu ohi dute, batzaz beste.

Planiker enpresak Urola Kostako eskolaz kanpoko ekintzei buruz bere garaian egin zuen azterketaren datuen arabera, eskolatik aparte antolatzen diren ekintza ia guztiak (%92) euskaraz antolatzen dira Orion. Hemen era askotako ekintzak sartzen dira: kirola, musika, katekesia, ingelesa...

Gaztetxoentzako elkargune baten falta sumatuta, Udalak Gaztelekua jarri zuen martxan orain dela bost bat urte. Hori ere Txurrumuski aisialdi elkarteak kudeatzen du eta tresna garrantzizkoa da hizkuntzaren normalizazioaren ikuspegitik, jarduera ugari antolatzen baititu euskaraz herriko gaztetxoekin batera.

Kiroldegia

2002an ireki zen Karela kiroldegia Orion eta, gaur egun, 1.800 abonatu inguru ditu.

Udalaren jabetzapekoa da Karela kiroldegia, baina horren gestioa azpikontratatu dio BPXport enpresari. BPXportek Udalaren hizkuntza irizpideak erabiliz gestionatu behar du kiroldegia. Kontu hori kontrolatzeko, besteak beste, Jarraipen Batzorde bat dago, aldiro-aldiro biltzen dena.

Herriko kirol taldeak

Herrian kirol elkarte ugari dago. Antolaketa maila eta tamaina oso desberdineko elkarteak dira: oso egituratuak, batzuk; eta ia-ia lagunartekoak, beste batzuk. Elkarterik sendoena eta handiena Arraun elkarte da: bazkide gehien dituen eta egiturarik antolatuena daukana.

Urola Kostako Udal Elkarteak programa bat du abian, 'Euskara Sasoian' izenekoa, eta, urteak daramatza kirol elkarteekin elkarlanean, euskararen erabilera bultzatzen. 'Euskara Sasoian' programa horren bidez, nahiko erradiografia zehatza daukagu herriko kirol taldeen hizkuntza-egoerari buruz eta, orokorrean, oso ona da, hutsuneak ere badauden arren. Nolanahi ere, egoera oso aldakorra izaten da, elkarteen osaeraren araberakoa delako: zer jende dagoen zuzendaritza-taldean, zer jarrera duten euskararekiko...

Oraindik arazoak daude hainbat taldetan entrenatzaile euskaldunak lortzeko eta, bestalde, hainbat kirol taldetan lidergoa duten pertsonak ez dute euskaraz egiteko joera handirik eta horrek, jakina, zailtasunak sortzen ditu giroa euskalduntzeko.

LIBURUGINTZA

Udaleko Kultura eta Euskara batzordeak bi literatur lehiaketa antolatzen ditu urtero: bat, eskola umeentzat; eta bestea gazte eta helduentzat.

Eskola umeentzat antolatutako literatur lehiaketara aurkeztutako lanik onenak argitaratu egiten ditu Udalak liburu batean, eta liburu hori herri osoan banatzen da gero San Pedro jaietan, ekainaren bukaeran.

Udazken inguruan, berriz, 'Euskaraz Gazte' literatur lehiaketa antolatzen du Udalak. Lan sarituak KARKARA aldizkarian argitaratzen dira gero.

Idazteko zaletasuna suspertzeko ahalegin horren barruan, literatur tailerrak antolatu izan ditu Udaleko Euskara batzordeak; baina, azken urteotan, ez da horrelakorik egin.

Bestalde, aurten egin da, aurreneko aldiz, euskarazko liburuak irakurtzea bultzatzeko kanpaina Orion (IGO: Irakurri, Gozatu eta Oparitu). Topagunearekin batera antolatu da.

KULTURGINTZA

Orio herri bizia da kulturgintzaren esparruari dagokionez, eta ekitaldi ugari antolatzen dira urtero, alor askotakoak.

Herriko kultur etxea da Udalak antolatutako kultur ekitaldien ardatza; baina badira espazio fisiko gehiago ere: Salatxo aretoa, Kosta tailerra, Ikastolako areto nagusia...

Herriko kultur taldeek ia guztiz euskaraz antolatzen dute beren jarduna eta ekitaldiak ere euskaraz izaten dira, salbuespenak salbuespen (Mandalara elkarte, Zaharren babeslekua...).

Azken urteotan, 'Euskaraz bizi-bizi' programaren anparoan, asko ugaritu dira euskarazko kultur jarduerak Orion eta herritarren erantzuna ere ona izaten da. Ostiraletan egiten dira jarduera horiek, gonbita sistema erabiliz eta ia beti 100 eta 150 lagun artean juntatzen dira.

Udalak ez du lortu herriko jaietan barrakeroek euskal musika jartzerik, eta hori aurrerantzean hobeto landu behar den gaia da.

CORPUS PLANGINTZA ETA EUSKARAREN KALITATEA

Udaleko Kultura eta Euskara batzordeak 'Orioko Euskara' izeneko liburua argitaratu zuen 1995ean. Herriko bi lagunek idatzi zuten liburua, batzordeak emandako beka bati esker. Lan mardul horretan Orioko euskararen berezitasunak jasotzen dira: aditz jokoa, adierazpide bereziak...

1998an, bestalde, herriko toponimoak bildu eta horien idazkera normalizatzeko saioa egin zuen Kultura eta Euskara batzordeak. Emaiza mapa toponimiko batean argitaratu zen. Ikermap enpresa arduratu zen toponimoen bilketaz, idazkeraren normalizazio proposamena lantzeaz eta mapa argitaratzeaz.

2001ean 'Abizenak Euskaraz' kanpaina abiatu zuen Kultura eta Euskara batzordeak aurreneko aldiz; eta, geroztik, hainbat aldiz berritu du. Azken urteotan, UEMaren laguntzarekin.

2002an 'Hirekin Bai' egitasmoa jarri zuen martxan Kultura eta Euskara batzordeak. Horren barruan hikako hizkerari buruzko ikastaroak eman izan dira kultur etxean. Azken aldian, Urola Kostako Udal Elkarteak hartu du bere gain lan hori eta ikastaroak antolatu izan ditu, hikaren erabilera zuzena erakusteko eta bultzatzeko.

Udalak, bestalde, idazkuntza ikastaroak antolatzen ditu bizpahiru urtetik behin-edo, beren idazkera hobetu nahi dutenei zuzenduta.

'Ahozkotasuna eta bertsojaritza' lantzeko programa bat ere jarri zen martxan 2004an herriko bi ikastetxeetan, Gipuzkoako Bertsozale elkartearekin elkarlanean eta indarra hartu duen egitasmoa da.

Udalak hasita dauka lan bat, bestalde, herriko zaharren hizkuntza ondarea jasotzeko. Beka baten bitartez egin ziren elkarriketa batzuk eta asmoa dago lan horri segida emateko ahotsak.eus webgunea gestionatzen duen Badihardugu elkartearekin elkarlanean.

Esperientzia eskolak ere egiten du ahalegina herriko hizkuntza ondarea jasotzeko eta lan horiek guztiak koordinatu beharra daude.

HEDABIDEAK

Karkara aldizkaria

KARKARA aldizkaria 1989an sortu zen Orion. 1994z geroztik Orioko berriak ez ezik, Aiakoak ere jasotzen hasi ziren, eta gaur egun Orioko eta Aiako herri aldizkaria da. KARKARA Taldea izeneko kultur elkarteak argitaratzen du aldizkaria.

DINA4 formatuko 40 orrialde argitaratzen dira hilero, eta doan banatzen dira herriko etxe guztietara.

Aldizkaria oso errotuta dago, eta herritarrek oso ondo hartzen dute. Udalak diruz laguntzen du. Azken urteotan, gainera, ahalegin berezia egin du mundu digitalean indartzeko eta, gaur egun, eskaintza indartsua egiten du karkara.com atariaren bidez.

karkara.eus

2007ko azaroan sortu zuen Karkara Taldea kultur elkarteak webgunea eta 2014an berritu du guztiz. Orio eta Aiari buruzko informazioa momentuan emateko helburua dauka, herritarren parte-hartzea sustatzearekin batera. Webgunea guztiz euskaraz da.

Urola Kostako Hitza

2004an sortu zen Urola Kostako Hitza egunerokoa. Urola Kosta eskualdeko berriak jasotzen ditu euskaraz, asteartetik ostiralera, eta Oriori buruzko notizia eta elkarrizketak publikatzen ditu ia egunero. Ez dauka Karkararen hedadura, ez delako buzoi guztietara zabaltzen, baina harpidedun dezenteren etxeetara iristen da egunero. Udalak diruz laguntzen du.

Nazio mailako hedabideak

Euskara Zerbitzuak egin zuen azken neurketaren arabera, oriotarrek gazteleraz kontsumitzen dute, batez ere, eguneroko prentsa. Orion erosten diren egunkarien %5 baizik ez da euskarazkoa (Berria egunkaria).

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Orioko Udalak teknologia berrien erabileran euskara sustatzeko egin duen ahalegina, orain arte, bere webguneari dagokiona da. 2001ean sortu zen webgunea, hainbat herritarren ekimenez, eta Udalak ordaindu zituen gastuak.

Udalak aldatu egin zuen 2003an webgunearen egitura, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako diru laguntza aprobetxatuz eta Udalaren webgunea da geroztik. Webgunearen atal batzuk eleanitzak dira; beste batzuk, elebidunak; eta, azkenik, euskara hutsezkoak ere badira hainbat atal: berriak, eztabaidagunea...

Urtetan, oriora.com domeinua erabili du Udalaren webguneak; baina, 2014ko abenduaz geroztik, .eus bukaera hartu du webguneak eta, hortaz, honako hau du helbidea: orio.eus

SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA

Alor honetan ahalegin ugari egin ditu Udaleko Euskara batzordeak azken urteotan. Aurrenekoa 'Euskaraz Gazte' izeneko kanpaina izan zen, herriko gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin egindakoa.

Horrez gain, hitzaldi eta jardunaldiak antolatu izan ditu Udalak, euskararen inguruko sentsibilizazioa eta motibazioa lantzeko. Azkena, 2011n antolatutako 'Oriko Euskararen arnagunea sendotuz' jardunaldia izan zen.

Azken bi urteotan, helburu berarekin, 'Euskaraz bizi-bizi' egitasmoa jarri du abian Udalak, herriko lagun eta elkarte batzuen laguntzarekin. UEMArekin batera elkarlanean egindako arnaguneen tailerretik 'euskararen aktibisten' talde bat sortu da, aldiro biltzen dena eta Udalarekin batera sentsibilizazioa lantzeko helburu duena. Hortik sortu da 'Euskaraz bizi-bizi' egitasmoa eta hori elikatzen duten posta-zerrenda eta bloga.

Egitasmoaren barruan hainbat jarduera garatu ditu Udalak: 2013an grabatutako 'Euskaraz bizi-bizi' bideoa (https://www.youtube.com/watch?v=F_94rghqBDk), 'Aita, ama... kontu bat dut zuei esateko...' programa, Parketarrak, jardunaldiak, euskarazko kultur ekitaldiak, 2013ko sanikolasetan egindako festibala, pegatinak...

ONDORIO OROKORRAK

Indarguneak

- Oriko bizilagun gehienak euskaldunak dira: hamar lagunetik, ia zortzi.
- Euskaldunak, gehienbat, euskaldun zaharrak dira eta hizkuntza-maila ona dute.
- Adin tarte guztietan dira nagusi euskaldunak.
- Urola Kosta eskualdea Euskal Herriko euskaldunenetako bat da.
- 25 urtetik beherako ia guztiak euskaldunak dira.
- 25 urtetik beherako gazteen artean ez dago ia inor euskara ulertu behintzat egiten ez duenik.
- Administrazioa. Udala UEMAKo kide da, martxan dauka euskararen erabilera plana eta euskaraz funtzionatzen du neurri handi batean.
- Irakaskuntza: D eredia baino ez dago irakasmila guztietan.
- Irakaskuntza: bi ikastetxeek abian dituzte normalizazio planak.
- Komunikabideak: Sendotu egin da komunikabide euskaldunen panorama azken urte hauetan: Karkara, karkara.com, Urola Kostako Hitza, Erlo telebista...
- Herritarrentzat antolatzen diren ekintza gehienak euskara hutsez antolatzen dira.
- Herriko elkarteek antolatutako ia ekintza guztiak euskaraz izan ohi dira.
- Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako ekintza guztiak euskaraz izan ohi dira.
- Gazteen artean euskararen erabilera etengabe igo da azken hamar urteotan eta, gaur egun, ia haurren erabilera mailetara iritsita dago.
- Euskararen gaiarekin kontzientziatuta dagoen jende-multzo garrantzizkoa dago herrian, ondo prestatutako lagunez osatua eta prozesuari hauspo emateko beti prest dagoena.

Ahuleziak

- Gurasoen artean gero eta bikote misto edo erdaldun gehiago dago.
- Etxeko hizkuntza euskara dutenen portzentajea nabarmen jaitsi da azken urteotan.
- Euskaraz ez dakien etorkin ugari herriratu da azken urteotan eta horrek zailtasunak sortzen ditu euskararen erabilera zabaltzeko.
- Garapen urbanistikoak Oriotik kanpoko jende ugari ekarri du gure herrira bizitzera eta, oro har, bizilagun berri horiek erdaldunagoak dira.
- Lan munduan erabilera areagotzeko egindako ahaleginek fruitu eskasa eman dute.
- Kaleko erabileraren datuek erakusten dute, helduen artean, jaisten ari dela euskararen erabilera, %55eko mailaraino.
- Corpusha: haur eta gazteen artean hizkuntza higitzen ari den ustea gero eta zabalduago dago irakasleen artean: gaztelaniaren interferentziak, adierazpenerako zailtasunak, hikaren erabilera okerrak...
- Udalaz kanpoko hainbat alorretan (posta zerbitzua, merkataritza...) euskararen erabilerak baditu oraindik hutsune nabarmenak.
- Herritarren artean hizkuntza ideologiari dagozkion kontzeptuak txertatzeko zailtasun handiak ditugu.
- Herrian sarrera gehien daukaten euskarazko hedabideetan hobe daiteke hizkuntzaren kalitatea.

Bukatzeko

Argiz eta itzalez osatutako argazkia da, ezinbestean, aurreko orrietan atera duguna. **Euskararen egoera, alor batzuetan, nabarmen ari da hobetzen (administrazioa, tokiko komunikabideak, irakaskuntza, kirola...); baina, aldi berean, euskara indarra galtzen ari da bere-bereak zituen hainbat esparrutan (etxean, bereziki; baina baita lagunartean ere).**

Udalak 2013an **'Euskaraz bizi-bizi' egitasmoa** abian jartzea erabaki zuenean, helburu argi honekin egin zuen: oriotarren kontzientzia linguistikoan eragitea, euskaraz bizitzeko aukera egin dezaten. Ematen du horrek behar duela datozen urteetarako lehentasunetako bat.

Beste lehentasun nagusia **euskararen irakaskuntzarena** da. Gaur egun oso eskaintza eskasa du Oriok herrian euskara ikasi nahi duenarentzat eta, azken urteotako joerak ikusita, badirudi horren premia handitzen ari dela. Horri konponbideren bat eman behar zaio.

Azkenik, **ahalegin handiena behar duten esparruak berariaz lantzeko proiektu zehatzak** jarri behar dira martxan: kirolean, merkataritzan eta parkeetan.

Kontuan hartuta pertsona helduen erabilera dela azken urteotan jaisten ari dena, kale-neurketen datuek erakusten dutenez, **honako helburua ezartzen du Udalak: plan estrategikoaren indarraldia bukatzen denerako, 2017rako, helduen euskararen erabilera % 5 puntutan igotzea, %56tik %61era.**

EUSKARAZ BIZI-BIZI PLAN ESTRATEGIKOA (2014-2017)

FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

Indarguneak	Ahuleziak
Euskararen transmisioa, gaur egun, ia erabatekoa da; 25 urtetik beherako oriotarren artean apenas dago euskaraz ez dakien inor.	Gero eta familia erdaldun eta misto gehiago dago, eta horietan ikastetxeek bermatzen dute, batez ere, haurren euskarazko ezagutza.
Familia euskaldunetan ia erabatekoa da euskararen transmisioa.	Hizkuntzaren alderdi afektiboa lantzeko zailtasunak bikote misto horietan.
Familia mistoetan ere oso altua da euskararen transmisioa (%83) nahiz eta hori, batez ere, eskolako lanari esker gertatzen den.	

Lehentasunak

- 1.- Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea.
- 2.- Familia barruan euskararen erabilera sustatzea.

Aurreikusitako ekintzak

- Familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai haurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak.
- Familia osatu berria duten bikote erdaldunak euskalduntzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak.
- Haur txikien gurasoentzako ikastaroak, jolas, ipuin eta kantuak lantzeko.
- 'Aita, ama... kontu bat dut zuei esateko...' egitasmoa.

IRAKASKUNTZA

Indarguneak	Ahuleziak
Herriko ikastetxeek D eredia baizik ez dute eskaintzen maila guztietan.	Etorkinen seme-alabak gero eta ugariagoak dira eta, zenbaitetan, ez da erraza horien hizkuntzazko integrazioa (batez ere, gaztelaniaz dakiten herrietatik datozenen kasuan).
Herriko ikastetxeek abian daukate hizkuntza normalkuntza programa.	Ahozko eta idatzizko hizkuntzaren higadura ikasleen artean.
Gurasoen jarrera irakaskuntza euskaldunaren aldekoa da, ia erabat.	
DBHko ikasketak euskaraz egiten dituzte herriko haur ia guztiek.	
Herriko haurren artean euskara da ohiko komunikazio hizkuntza.	
Azken urteotan lan handia egin da Orioko curriculum osatzeko eta hor garrantzi handia du euskararen gaiak.	

Lehentasunak

- 1.- Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea.
- 2.- Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea.
- 3.- Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea.

Aurreikusitako ekintzak

- Etorkinen seme-alabak euskalduntzeko neurriak hartzea.

- Ikastetxeetako euskararen normalkuntza planetako ekintzak sustatzea.
- Ahozko adierazmena indartzeko ekintzak sustatzea.
- Orioko curriculumuma osatzeko lanarekin segitzea.

EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA

Indarguneak	Ahuleziak
Herria oso euskalduna denez, ikastaro espezifikoek jasotzaile potentzialak oso ugariak dira.	Alfabetatzeko taldeak sortzeko zailtasuna.
Herria oso euskalduna denez, herritar erdaldunek nabarmenago ikusten dute euskara ikastearen komenientzia edo beharra.	Euskalduntze mailako talde homogeneoak sortzeko zailtasuna.
	Euskara herrian ikasteko eskaintza egokirik ez dago.

Lehentasunak

- 1.- Euskara ikasteko erraztasunak emango dituen azpiegitura indartzea.
- 2.- Elebitasun pasiboa helduen munduan eta gutxieneko helburutzat areagotzea eta prestigiatzea.
- 3.- Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztatuko dituztenak.
- 4.- Etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea.

Aurreikusitako ekintzak

- Herrian euskara ikasteko eskaintza egokia bideratzea.
- Eskaintza egoki horren barruan ikastaro bereziak ere antolatzea: Euskaltzaindiaren arauak, idazkuntza, hitanoa, etorkinentzako ikastaroak...
- Internet bidezko ikaskuntzan sakontzea.
- Mintzalagun programa indartzea eta ekintza osagarriak antolatzea (Mintzodromoa, euskaldunberrien ahalegina balioan jartzeko bideoak...).
- Baldintza minimo batzuk betetzearen truke diru-laguntzak eskaintzea.
- Euskara ikasteko motibazioan eragiteko kanpainak.

ADMINISTRAZIOA

Indarguneak	Ahuleziak
Udaleko zinegotzi guztiak euskaldunak dira gaur egun.	Langile batzuk ez dute lortu oraindik dagokien hizkuntz perfila.
Udaleko langile ia guztiak euskaldunak dira, eta beren lana euskaraz egiteko gauza.	Langile batzuek zailtasunak dituzte oraindik beren hainbat lan euskaraz egiteko.
Udala UEMAko kide da 2002az geroztik.	Idatzizko lan batzuk gaztelaniaz egiten dira oraindik Udalean.
Udalak martxan dauka Euskararen Erabilera Plana.	

Lehentasunak

- 1.- Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatu.
- 2.- Langileen euskara-gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea.
- 3.- Euskara lan-hizkuntza nagusia izango dela bermatzea.
- 4.- Hirigintza-planak diseinatzerakoan euskararen gaia aintzakotzat hartzea.

Aurreikusitako ekintzak

- Euskararen erabilera planaren segimendua egitea eta langileek euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabideak eskaintzea.
- Udal agintariak Euskara Planean inplikatzeko.
- Udal administrazioz kanpoko zerbitzuetan eragitea, euskararen erabilera sustatzeko (anbulatorioan, postetxean...)
- Euskara Zerbitzua sendotzea, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean.

GUNE GEOGRAFIKO EUSKALDUNAK

Indarguneak	Ahuleziak
Udala UEMaren kide da 2002az geroztik.	Herritarren artean ez dago oso zabalduta zer den UEMA eta zer lan egiten duen.
	Herritarren artean ez dago oso zabalduta arnaguneen garrantziaren ideia

Lehentasunak

- 1.- Arnaguneei eta beren funtzioari buruzko informazioa zabaltzea.

Aurreikusitako ekintzak

- 'Euskaraz bizi-bizi' blogaren bitartez iritzi-artikuluak argitaratu eta zabaltzea.
- Aldiro-aldiri kanpainak egitea, UEMaren ezagutza areagotzeko.
- UEMaren eguna Orion antolatzea.

ARLO SOZIO-EKONOMIKOA

Indarguneak	Ahuleziak
Udalak urte asko daramatza 'Merkataritza Euskaraz' programa lantzen eta horrek dagoeneko izan du eragina (paisaje linguistikoan, dendari eta tabernarien kontzientziazioan...).	Orioko enpresetan ez dago bakarra ere Euskararen Erabilera Plana martxan duenik.
Bai merkataritza alorrean, bai zerbitzuetan, eta bai herriko enpresa txikietan euskaldunen portzentajeak altuak dira, langile zein arduradunen artean.	Oraindik badaude herrian denda eta tabernak beren eskaintzaren berri herritarrei gaztelania hutsean ematen dietenak.
Urola Kostako Udal Elkarteak alor hau eskualde osoaren ikuspegitik lantzen hasi zen 2013an, KALEKO egitasmoaren bidez.	

Lehentasunak

- 1.- Euskara-planen bidea jorratzea herriko establezimenduetan.
- 2.- Enpresen jardunean hizkuntza irizpideak ezartzeko pausoak ematea.

Aurreikusitako ekintzak

- 'Merkataritza euskaraz' programa indartzea.
- Herriko enpresekiko harremanetan euskara lehenestea (tramite administratiboak, zirkularrak, gutunak...)
- Errotuluak eta ageriko elementuak euskalduntzeko diru laguntzak eskaintzea.
- 'Bai Euskarari' egitasmoa Orion garatzea, Arkupe elkartearekin elkarlanean.

AISIA ETA KIROLA

Indarguneak	Ahuleziak
Haurrentzat antolatzen diren aisialdiko ekintza guztiak euskaraz izaten dira	Aisialdirako materiala euskaraz lortzeko zailtasunak.
Ekintza gehienak Txurumuski taldeak antolatzen ditu eta, antolatzerakoan, kontuan izaten ditu hizkuntza irizpideak.	Gaztetxea martxan dago; baina ez du lortu programa finko sendorik garatzea.
Eskaintza ugari eta egokia egiten du Txurumuskik haurren aisialdirako.	Hainbat taldetan zailtasunak dituzte entrenatzaile euskaldunak aurkitzeko.
Gaztelekuaren eskaintza guztiz euskaraz da.	Kiroldegian ere zailtasunak daude hainbat kiroltako monitore euskaldunak aurkitzeko.
Gaztetxearen eskaintza guztiz euskaraz da.	Taldeen erabiltzen duten materiala, askotan, ez dago euskaratuta.
Herriko kirol taldeek euskaraz antolatzen dituzte, normalean, ekitaldi irekiak (kartelak, megafonia, prentsa oharrak...).	
Kirol taldeetan, batez ere, gazteak dabiltzanez, erabiltzaileen hizkuntza ezagupena oso altua da, ia denek baitakite euskaraz.	
Urola Kostako Udal Elkartearen bidez, 'Euskara Sasoian' programa dago martxan azken urteotan, kirol elkarteetan euskararen erabilera bultzatzeko.	

Lehentasunak

- 1.- Aisialdiko jardueretan euskararen presentziari eta erabilerari eustea.
- 2.- Aisialdiko ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea.
- 3.- Etorkinak aisialdiko programetan integratzeko programak garatzea.
- 4.- Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea.

Aurreikusitako ekintzak

- Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatzea.
- Tailer-ikastaroak euskaraz antolatzea.
- Udan euskaraz antolatzen diren ekintzak indartzea.
- Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatzea.
- Gaztelekuaren eskaintza sendotzea.
- Kirol taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak bideratzea eta material horiek kirol-klub eta elkarteetara helaraztea.
- Kirolean euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio ekintza zehatzak egitea.
- Kiroldegan euskararen erabilera sustatzea, erabilera plan baten bidez.
- 'Euskara Sasoian' programa lantzen segitzea, hortik sortzen diren proposamenak indartuz.
- Udako euskarazko kirol eskaintza indartzea

LIBURUGINTZA

Indarguneak	Ahuleziak
Bi literatur lehiaketa antolatzen dira herrian, eta nahiko sustraituta daude biak.	Haurren literatur lehiaketaren antolaketa-moduan aldaketak egiteko premia ikusten dute ikastetxeetan.
Haurren lehiaketan oso handia izaten da parte hartzea.	Gazteen literatur lehiaketan parte hartzea areagotzeko zailtasunak.
Herritarrek harrera ona egiten diete lehiaketako lanen argitalpenei (batez ere, haurren lanen liburuari).	

Lehentasanak

- 1.- Literatur lanak sortzeko aukerak ematea herritarrei.
- 2.- Irakurzaletasuna bultzatzea.

Aurreikusitako ekintzak

- Kontseiluarekin batera irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina bultzatzea (IGO).
- Euskal literaturaren zaletasuna bultzatzeko ekitaldiak antolatzea (euskal liburuak komentatzeko irakurle taldeak, literatur tailerrak...).
- Eskola umeentzako literatur lehiaketa.
- Euskaraz Gazte literatur lehiaketa.

KULTURGINTZA

Indarguneak	Ahuleziak
Kulturgintzaren esparruak garrantzi handia du Orion. Ekitaldi ugari antolatzen dira eta, gehien-gehienak, euskaraz.	Bete-beteen kulturaren esparrukoak ez diren arren, talde batzuk gaztelaniazko eskaintza indartsua dute.
Ekitaldi horiek erantzun ona izan ohi dute, jendearen aldetik.	Oro har, euskarazko kulturaren kontsumoa ez da oso handia (liburutegian gaztelaniaz hartzen dira liburu gehienak, dendetan ere erdarazkoak dira salduenak...)
Herriko kultur taldeek antolatutako ekintzak euskaraz izaten dira, ia erabat.	Zenbait alorretan, euskarazko produktuen falta (bideoak, DVDak...)
Udalak antolatutako kultur ekitaldi ia guztiak ere euskaraz izaten dira.	Kultur elkarte gutxi batzuk zailtasunak dituzte euskarazko ekitaldiak antolatzeko.
Azken urteotan indartu egin da kultur alorrean egitarau bateratuak argitaratzeko joera.	

Lehentasunak

- 1.- Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea.
- 2.- Euskarazko sorkuntza sustatzea.
- 3.- Euskarazko kultur produktuen zabalkunde egokia egitea.

Aurreikusitako ekintzak

- Udalaren menpeko kultur guneetan euskarazko materialak eguneratuta izatea eta herritarren eskueran jartzea.
- Euskaltegi, ikastetxe eta herriko elkarteekin batera ekintzak antolatzea.

- Herriko festetan eta kultur ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatzea.
- Kultur taldeen antolakuntza bultzatzea herrian.
- Euskal kultur produkzioa zabaltzea eta ezagutaraztea
- Kultur programa jarraitua eta osoa eskaintzea
- Herriko gaiei buruzko euskarazko argitalpenak bultzatzea.
- Senidetzea lantzea Iparraldeko herriren batekin.
- Euskarazko bideo laburren lehiaketa antolatzea, kontzientziazioa lantzeko.
- Festetako barraketan euskarazko musika bermatzea.
- Herriko kultur ondarea zaindu eta ezagutarazteko programak bideratzea.

CORPUS-PLANGINTZA ETA EUSKARAREN KALITATEA

Indarguneak	Ahuleziak
Herritar askoren lehen hizkuntza euskara da, eta aberastasun handiz erabiltzen dute.	Hizkuntzaren kalitateari erreparatzeko ohitura, joera edo ezagutza falta herritarren artean.
Haur eta gazteen artean ere gehiengoa da euskaraz hobeto egiten duela esaten duena.	Gazteen artean hizkuntzaren higadura gertatzen ari da: hikaren erabilera okerrak, adierazkortasun falta, gaztelaniaren interferentziak...
Hizkuntza paisaian aurrerapauso nabarmenak eman dira azken urteotan.	
Udalak eta herriko elkarteek (bereziki, ikastetxeek eta Karkara taldeak) egindako lanari esker, herritar gehienak gauza dira euskaraz eroso irakurtzeko.	

Lehentasunak

- 1.- Adierazkortasuna zaindu eta indartzea.
- 2.- Euskararen kalitatea zaintzea.

Aurreikusitako ekintzak

- Merkatal guneeetako hizkuntza-paisaian (denda, taberna, akademia eta abar) euskararen presentzia txukundu eta areagotzea.
- Toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia normalizatzea
- Hizkuntza ondarea gordetzeko eta zabaltzeko ekintzetarako laguntza eskaintzea.
- 'Abizenak Euskaraz' kanpaina

- 'Hirekin Bai' programa
- Bertso eskola sendotzea.
- Erabileraren kale neurketa.
- Ahozko hizkuntzaren corpora jasotzeko programa indartzea (ahotsak.com).

HEDABIDEAK

Indarguneak	Ahuleziak
KARKARA euskarazko aldizkaria errealitate errotua da herrian.	Eguneroko prentsa euskaraz kontsumitzeko ohitura falta.
Urola Kostako Hitza egunerokoak ere bere bidea egin du eta herriko etxe askotara iristen da.	Prentsa espezializatu falta euskaraz: informatika, autoak, gazteentzako aldizkariak...
Karkara Taldea kultur elkarteak karkara.com webgunea dauka martxan, guztiz euskaraz, eta indarra hartu doa.	Irrati-telebistako hutsunea
DVren herriko kronikan euskarak tokia irabazi du azken urteotan.	

Lehentasunak

- 1.- Euskarazko hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetzeko neurriak hartzea.
- 2.- Hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea.

Aurreikusitako ekintzak

- Eskualde edo herri mailako komunikabideetan euskararen erabilera bultzatzea.
- Euskarazko komunikabide idatzien hedapena herrian laguntzea.
- Lehentasuna ematea euskarazko eguneroko prentsari, Udalaren iragarki eta informazioak kaleratzerakoan.
- Euskarazko komunikabide idatzien hedapena herrian laguntzea (astekariak, hilabetekariak, gazte aldizkariak, musikakoak...)
- Teknologia berrietan herriko informazioak tokia irabaz dezan bermatzea.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK

Indarguneak	Ahuleziak
Udalak orio.eus web orria gestionatzen du eta euskarazko edukiak ziurtatuta daude.	Teknologiaren alorrean ingelesa ari da gailentzen, eta horrek toki estua uzten du hizkuntza txikientzat.
Udalaren web orriko atal nagusietako bat, albistegia, euskaraz da; eta gainerakoak, gutxienez, elebidun.	Euskarazko produktu eta zerbitzuak aurkitzeko zailtasunak.
Karkara Taldea kultur elkarteak karkara.com webgunea jarri du martxan, guztiz euskaraz, eta oso erreminta ona da herritarren euskarazko jardun idatzia bultzatzeko eta informazioaren teknologia berrien erabilera euskararen bidez zabaltzeko.	

Lehentasunak

- 1.- Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa bateratu eta zabaltzea.
- 2.- Interneten euskarazko edukiak sustatzea.

Aurreikusitako ekintzak

- Euskara lantzeko tresnen zabalkundea egitea herritarren artean.
- 'Paperik gabeko' informatizaziorako udalen ahaleginetan, zerbitzuak euskaraz eskuragarri jartzea.
- Ondare kulturala bildu, ahal den neurrian digitalizatu eta zabaltzea: toponimia, argazki zaharren bilduma, gertaerak, euskalkiari buruzko informazioa...
- Sare sozialetan euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak lantzea.

SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA

Indarguneak	Ahuleziak
Udalak martxan jarritako 'Euskaraz bizi-bizi' kanpainak harrera ona izan du herritarren artean eta izen bereko bloga ere tresna eraginkorra da.	Heldu euskaldunen artean asko dira gaztelaniaz egiteko joera dutenak. Lehen baino gehiago.
Herritarrek osatutako 'aktibisten' talde bat osatuta dago, aukera ematen duena euskararen aldeko mezuak modu naturalean zabaltzeko.	Euskararen erabilera zabaltzearen aldeko diskurtsoa ez dago oraindik normalizatua, eta askorentzat ideologia jakin bateko jendeari dagokio.
Herriko eragileen jarrera oso ona da euskararekiko, orokorrean, eta beti prest agertzen dira motibazio-lanetan laguntzeko.	
Teknologia berrien alorrean azpiegitura ona dugu herrian eta oso baliagarria da hori, euskararen aldeko motibazioa suspertzeko.	

Lehentasunak

- 1.- Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea.
- 2.- Kontzientziazio-kanpainak bultzatzea.

Aurreikusitako ekintzak

- 'Euskaraz bizi-bizi' kanpaina bultzatzea.
- 'Aita, ama...' kanpaina bultzatzea.
- Blogaren bidez, etengabe, euskararen erabilerari buruzko mezuak zabaltzea, kontzientziazioan eragiteko.